

Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2017ko otsailaren 2ko bileraren ondorio nagusien sintesia

- **2016 Txostena:** Emailaz bidaliko da hurrengo bileran balioztatu ahal izateko.
- **Hondakinen tratamendurako kuotaren kitapena: tamaina txiki, organikoa eta handiak:** 2016 Txostena onartu eta gero, martxoan, kitapena bidaliko zaio Udal bakoitzari.
- **2017 Jardueraren esparru-kronograma: Egutegia eta mugarri nagusiak:** Bide-orri proposamen bat aurkeztu da, hilabetez hilabete, zerbitzuz zerbitzu.
- **Frakzio organikoari buruzko 3gn kanpaina:** Badira 3.122 parte hartzen ari diren etxeak, eskualdeko %24,9 eta 147 ekoizle ertain-handi.
- **BFA organikoa diru-laguntza eskaera 2017:** Etxeko hondakinen frakzio organikoaren bilketa bereziko edukiontzia ezartzeko diru-laguntza eskaera aurkezteari onespena ematen zaio.
- **Etxeko hondakinak biltzeko lehiaketa:** Gehienezko aurrekontua onartu da abokatu eta prokuradorea kontratzeko.
- **Hondakinei buruzko udal ordenantza:** Erabaki da lantalde bat antolatzea, hondakinei buruzko udal ordenantzen onarpena ahalbidetzeko. Udalsarea 21en eredia oinarri hartuta, eskualdearen errealitateari egokitutako oinarritzko eredia prestatuko da.
- **Aiarako Eskualde Hitzarmena Eranskina:** Partaide diren udalen onarpenaren ondoren, sinadura antolatzea erabaki da.
- **Energiaren Eskualdeko Behatokia:** Udal-arduradunei gonbit egin zaie norberaren udalerriko SIEn sartzeko eta egiteko dauden potentzia-optimizazioak baliozkotzeko. Behatokiaren aurkezpen publikoa martxoaren 30en egitea adostu da.
- **Euronet 50/50:** Ikastetxeen erantzuna helaraziko zaio Udal bakoitzari. Martxoan laguntza teknikoa kontratatuko da, proiektua dinamizatzeko interesa duten zentroetan.
- **TA21: Ebaluaketa eta jarraipen 9. Egitasmoa:** Hurrengo egunetan bidaliko da Bulegotik informazio eskaera 2015 eta 2015 urteetako Tokiko Ekintza Planaren ebaluaketa egin ahal izateko.
- **Basauriko soberakinaren kitapena:** Ebazpen proposamena bidaliko da martxoak 9ko Batzordean onartu ahal izateko.
- **Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralarekin bat egitea.** Erabaki da Batzar Nagusiari proposamena egitea Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabalek bat egin dezan Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralarekin, Udalen menpeko erakunde instrumental den aldetik.
- **S.L.ren Batzar Nagusia:** Martxoaren 23an egitea onartu da, 9etatik 10:30etara.
- **Informazioak:** Jasotako akordio sinatuak eta sartutako kuotak; Bilbo Metropolitarraren LPPren berrikuspena: Foro tematikoak; URA Hitzarmenaren balantzerako bilera.



- **Bestelakoak:** BFA hondakinen Inguruko Hitzarmenak; Hurrengo bilerak: Batzordea, martxoaren 9, 9etatik 11 arte, URArekin egindako hitzarmenaren balantzea barne (ordu 1); S.L.ren Batzar Nagusia, martxoaren 23, 9etatik 10:30ak arte; Energiaren Eskualdeko Behatokiaren aurkezpena, martxoaren 30, 11etatik 12ak arte; Batzordea, apirilaren 6, 9etatik 11 arte. Ondoren, Hondakinei buruzko udal ordenantzari buruzko lan mahaia, 11etatik 12:30ak arte.